

- 4 Jarraian, kontinente bakoitzari buruzko testuak dituzu. Elkartu testu bakoitza dagokion kontinentearekin. Gelako paretan duzun munduko mapa lagungarri izango zaizu.

KONTINENTEEN DESKRIBAPENAK

1

Hego hemisferioan kokatuta dago, Lur planetaren hegoaldean. Kontinente txikiena da. Uharte asko ditu eta ezagunenak Australia, Zelanda Berria, Ginea Berria eta Polinesia dira. Australia da handiena eta bertan basamortu idorrek, mendiak, ibaiak eta aintzirak daude. Ibaiak, ordea, ez dira oso luzeak, ez eta mendiak oso garaiak ere.

2

Bigarren kontinente handiena da. Hiru parte bereizten dira: iparraldea, erdialdea eta hegoaldea. Iparraldean Mississippi ibai ezaguna dago, erdialdean sumendi ugari eta hegoaldean mendikate luzeak eta aintzira asko: Titikaka, adibidez. Hiru ozeano ditu inguruan.

3

Hirugarren kontinente handiena da. Gorputz sendo baten itxura du, eta iparraldeko partea zabalagoa du hegoaldekoa baino. Mendikate asko ditu eta sabanak ere bai. Itsasoz inguratuta dago.

4

Hego hemisferioan kokatuta dago. Lur-zati handi batek eta zenbait uhartek osatzen dute. Lur-zatia glaziar batek estaltzen du. Mendiak, sumendiak eta lautadak daude, baina ibairik ez. Klimaren ondorioz, ia ez dago landaretzarik; animaliak, berriz, bertako klima gogorrera egokituta bizi dira.

5

Barruko itsasoak ditu: Aral itsasoa, Kaspiar itsasoa eta Itsaso Hila. Mendikate ugari ditu eta han dago munduko mendirik altuena, Everest, bai eta munduko punturik baxuena ere, Itsaso Hila. Tigris eta Eufrates ibaiak oso garrantzitsuak izan dira Historian.

6

Bigarren kontinente txikiena da. Itsasoa garrantzitsua izan da beti kontinente horretako biztanleentzat. Kanpotik jaki asko ekarri ohi zituzten, eta orain ere bai. Herrialde asko dauzka. Itsasoak eta ozeanoak ditu inguruan. Eta uharteak eta penintsulak ere bai. Gu hor bizi gara.